

SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK

GU BAI GURASO BERRITSUAK

ESKOLAZ KANPO ERABILTZEKO AUKERAK EMAN

Hizkuntzak ikastea eta eleaniztunak izatea ona izango da gure seme-alabentzat. Horrek abantaila sozialak eta kulturalak emango dizkie, besteak beste. Baina haurrek hizkuntzak ondo ikas ditzaten oinarri garrantzitsuena erabilera da.

Euskararen kasuan, eskolaz kanpo zenbat eta gehiago erabili askoz hobe. Ez soilik hizkuntza ondo ikastera begira, eskolaz kanpo euskara erabiltzeak hizkuntza horretan bizipenak izatea eta hizkuntza horrekin ere gozatzea ekarriko die. Eman diezaiegun horretarako aukera.

Haurrek eskolan ematen duten denbora, euskararen erabileraren ikuspegitik, mugatua da. Urte osoan zehar askoz ordu gehiago ematen dituzte beste egoera batzuetan: etxean, kanean eta abar.

Hainbat testuingurutan eskolaz kanpo euskara eskaintzeko aukera eman behar zaie. Behar beharrezkoa dute hizkuntza ondo ikasteko, eta are gehiago, euskara bizipen eta sententzio positiboekin lotzeko. Ez dadila soilik klaseko hizkuntza izan.

Eskola orduz kanpoko jarduerak garrantzia berezia dute. Zergatik?

Eskola orduz kanpoko jarduerak aukera asko eskaintzen dizkigute: kirola, antzerkia, musika, aisialdia... Jarduera horietan euskara erabiltzeko zenbat eta aukera gehiago izan, askoz hobea. Argi izan behar dugu jarduera horien garrantzia:

- Jarduera dinamizatuak dira: hezitzaile edo entrenatzaile batek gidatzen ditu eta euskararen erabilera ere dinamizatu dezake.
- Bizipen asko izaten dituzte: ez dira eskolako jarduerak, bestelako harreman eta bizipen batzuk ematen dira jarduera hauetan.
- Erreferenteak eskaintzen dizkie: euskara dakiten eta erabiltzen duten erreferenteak, haur eta nerabeentzat gertukoak eta erakargarriak izan daitezkeenak.
- Eskolak eskaini ezin dituen hizkuntza erregistroak garatu ditzakete: lagunarteko harremanei begira oinarritukoak dira hainbat hizkuntza-egitura eta hiztegi bereganatu dezakete.

Zer egin dezakegu?

Euskarazko eskola orduz kanpoko jarduerari lehentasuna eman. Bermatu beharko genuke jardueretako batzuk behintzat euskaraz izango direla.

Eskola orduz kanpoko jarduerak:

- Zuen inguruan euskaraz zein jarduera eskaintzen diren begiratu eta jardueraren hizkuntzari garrantzia eman.
- Hainbat aukera izango dituzue:
 - o Ikasturtean zehar: kirol jarduerak, aisialdi jarduerak, antzerki ikastaroak, musika klaseak, robotika, pintura eta beste hainbat.
 - o Udako oporretan: Udaleku irekiak, udaleku itxiak, kirol kanpusak eta abar.
- Aukeratutako jarduera ez badute euskaraz eskaintzen, eskatu. Guraso askok eskatzen baduzue, errazagoa izango da eskaintzen hastea.

Haurrentzako ekitaldiak:

- Herrian edo inguruan antolatzen diren euskarazko ekitaldietara eta emanaldietara adi egon: antzerkia, musika, zinema, pailazoak... Seme-alabekin batera jarduera horietara joan gaitezke eta giro euskaldun, atsegin eta dibertigarriak eskaini.

Lantegiak eta bisita gidatuak:

Asteburu edo opor garaietan, gainera, bestelako eskaintzak ere kontuan har ditzakegu: hainbat bisita gidatu edota lantegi aurkituko ditugu Euskal Herrian zehar. Bisita edo lantegi horiek euskaraz izan daitezen bermatu.

Adibidez:

- Topic, txotxongiloen etxea. Tolosa (Gipuzkoa). www.topictolosa.com
- Izenaduba basoa, parke mitologikoa. Mungia (Bizkaia). izenaduba.com
- Mendukilo kobazuloak. Astitz-Lekunberri (Nafarroa). www.mendukilo.com
- Arrikruz kobazuloa. Oñati (Gipuzkoa). www.oinaturismo.eus
- Lurrun-trena. Lasao-Azpeitia (Gipuzkoa). www.museoa.euskotren.eus
- Txindokiko Itzala abentura parkea. Abaltzisketa (Gipuzkoa). info@txindokikoitzala.com
- Irrisari Land abentura parkea. Igantzi (Nafarroa) www.irriasariland.eu
- Urdaibai Ekoetxea. Busturia (Bizkaia) www.ekoetxea.eus